# Beste zenbait Iragarpen Ofizial
# Otros Anuncios Oficiales

**KULTURA SAILA**

INFORMAZIO PUBLIKOA, Pasaiko Jaizkibel Draga Kultur Ondasun lez, Monumentu kategoriaz, kalifikatzeko espedientearena. 6490

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

INFORMACION PUBLICA del expediente de calificación de Bien Cultural a favor de la Draga Jaizkibel de Pasajes, con la categoría de Monumento. 6490

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**OGASUN ETA FINANTZA SAILA**
**HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA**

**1957**

175/1992 DEKRETUA, ekainaren 23koa, «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» izeneko Baltzu Publikoa sortzen zuen Dekretua aldatzeari buruzkoa.

Eusko Jaurlaritzak etxebizitzei buruz duen programa berrian berrikuntza garrantzizko bat sartzen da, hau da, alogerako etxebizitzen merkatua ondasun higiezinezko sektorean bultzatzekoa eta sortzekoa alegia, era honetan, etxebizitza erosteko modurik ez duten pertsona eta elkarbizitza-unitateei lagundu ahal izateko.

Programaren parametro hauen barruan, alogeraren aldeko sustapen publiko mailako politika garatuz ekin nahi dio Eusko Jaurlaritzak programa horri. Sustapen horretarako erizpideak, lastertasuna, emankortasuna eta onuradunaren ekonomi mailako zirkunstantziei egokitzea dira.

«Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» izeneko Baltzu Publikoa sortzen zuen azaroaren 21eko 258/1989 Dekretua, baliabide juridiko egokia da eta ondasun higiezinen ondarea sortzeko eta, lehen aipatu diren zernolakoen arabera, kudeatzeko behar hainbateko gaitasuna eskaintzen da bertan. Horretarako, beharrezkoa da, baltzuaren xedea, baltzuari eman nahi zaizkion ihardun berriei egokitzea eta, bere iharduera egoera, ahalmen berriei egokitzea.

Horiek horrela, Hirigintza eta Etxebizitza Sailburuaren eta Ogasun eta Finantza Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko ekainaren 23an egin zuen bileran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» izeneko Baltzu Publikoa sortzen zuen azaroaren 21eko 258/1989 Dekretuko 3. atala aldatzea. Honako era honetan gelditurko da idatzita:

1.– Baltzuaren xedea:

I.– Etxebizitzen eta, bereziki, Babespen Ofizialeko etxebizitzen sustapena eta horiek bereoneratzea, atal honetako c) apartaduan ezartzen denaren kaltetan gabe. Honako hauek hartuko ditu ihardun horrek:

**DEPARTAMENTOS DE HACIENDA Y FINANZAS**
**Y URBANISMO Y VIVIENDA**

**1957**

DECRETO 175/1992, de 23 de junio, de modificación del Decreto por el que se acuerda la creación de la Sociedad Pública «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.».

El nuevo programa del Gobierno Vasco en materia de vivienda, introduce como novedad importante, la de impulsar y generar, dentro del sector inmobiliario, el mercado de la vivienda en alquiler, para atender aquellas personas y unidades convivenciales que no pueden acceder a la propiedad de una vivienda.

Dentro de estos parámetros programáticos, el Gobierno Vasco pretende iniciar el mismo con el desarrollo de una política de promoción pública del alquiler, la cual, responde a criterios de agilidad y operatividad, y adecuación a las circunstancias económicas personales del beneficiario.

La Sociedad Pública «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.», creada por el Decreto 258/1989, de 21 de noviembre, es el instrumento jurídico apropiado, con capacidad suficiente, para generar y gestionar este patrimonio inmobiliario, con arreglo a las características que antes se han apuntado. Para ello es preciso adaptar su objeto social a la nueva actividad societaria que se le pretende atribuir, y adecuar su estructura de funcionamiento a las nuevas atribuciones.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Urbanismo y Vivienda y de Hacienda y Finanzas, previa deliberación del Consejo de Gobierno, en su reunión del día 23 de junio de 1992.

DISPONGO:

*Artículo único.–* Modificar el artículo 3 del Decreto 258/1989, de 21 de noviembre, por el que se acuerda la creación de la Sociedad Pública «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.», que queda redactado de la siguiente forma:

1.– La Sociedad tendrá por objeto:

I.– La promoción y rehabilitación de viviendas, preferentemente de Protección Oficial, sin perjuicio de lo que previene al apartado c) de este artículo. Dicha actividad comprenderá:

a) Nahiz erakunde publikoarenak izan, nahiz norbanakoenak izan eta edozein era eta prozedurapean, etxebizitzetarako lurren eta ondasun higiezinen plangintza, urbanizaketa, zatiketa eta erosketa egitea, etxebizitzak sustatzeko operazioak burutzea izango dela horien xedea.

b) Euskal Autonomi Elkarteko eskakizun sozialei eta lurralde zernolakoei egokitutako ekipamendu komunitarioekin, lurren urbanizaketarekin eta etxebizitzen eraikuntza eta bereoneraketarekin lotura duten eta era guztietako obra, ikerketa, proiektu, mantenimendu eta kudeaketa-lanak esleitzea eta kontratatzea. Horretarako, Baltzuak horien kudeaketa egiten dueneko etxebizitzak eta ekipamenduak libreki erabiltzeko bideak eskainiko dizkie horretan agintea duten erakundeei eta legezko esleipendunei.

c) Sorospen tekniko mailako prestazioak eta bere izakera eta ihardunekin bat datozen zerbitzuak edozein eratako enpresa edo izaiki publikoei eskeintzea.

II.– Etxebizitzei buruzko operazioetarakoak diren bereoneratze-ekintza guztiak, nahiz lurra erosi eta gertatzeari buruzkoa izan, nahiz gune historiko eta arkitektonikaoak eratze eta kontserbatzeari buruzkoa izan eta beste batzuk ere bai; eta bereziki, egon dauden etxebizitzen eta edozein eratako sustapen-modupeko bereoneraketak.

III.– Teknika mailako sorospenak beste batzurentzako egitea ordainketak jasoz, eta teknika, ekonomia, industria, merkataritza, komisio edo bere izakera eta ihardunekin bat datozen beste edozein iharduera burutzea.

IV.– Edozein eratako ondasun higikor edo higikaitz erostea eta saltzea, eta aurreko puntuetan aipatzen diren helburuak lortzeko eta ihardunak burutzeko beharrezko edo komenigarriak diren eraikuntza edo edifikazio, horietan egitea.

V.– Ondare sozialarenak diren etxebizitzen kudeaketa egitea errentamendu erregimenpean eta bai edozein eratako zesio-titulupean Baltzuari, errentamendu xedez, atxikitako beste etxebizitza batzurena ere.

2.– Bere xedeak bete ahal izateko, honako hau ere egin ahal izango du Baltzuak: Etxebizitzen eraikiketa edo, hala behar denean, gisa horretako programak xedetzat dituzten nazio mailako edo atzerri mailako beste enpresa batzutan parte hartzea, Jaurlaritzaren baimena eskuratu ondoren eta kasu bakoitzean ezar daitezen baldintzen arabera.

3.– Edozeinek parte har dezaneko erregimenpean esleituko ditu obrak eta sekula ezin gauzatu ahal izango ditu Baltzuak artez, honako printzipio hauek errespetatu beharko direla prozedura ezartzerakoan, hau da, publizitatea eta edozeinek parte hartu ahal izatea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko ekainak 23.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

Hirigintza eta Etxebizitza Sailburua,
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA.

a) El planeamiento, urbanización, parcelación y adquisición de terrenos residenciales e inmuebles, ya sean de entes públicos, ya de particulares, bajo cualquier forma y procedimiento, con destino a operaciones de promoción de viviendas.

b) La adjudicación y contratación de toda clase de obras, estudios, proyectos y trabajos de mantenimiento y gestión relacionados con el equipamiento comunitario, la urbanización de terrenos y la construcción y rehabilitación de viviendas, adecuadas a las exigencias sociales y características territoriales de la Comunidad Autónoma, facilitando a los organismos competentes, y a los adjudicatarios legitimados al efecto, la libre disponibilidad de las viviendas y equipamientos gestionados y promovidos por la Sociedad.

c) Proporcionar, mediante contrato, a cualesquiera empresas o entes públicos prestaciones de asistencia técnica y servicios propios de su naturaleza y actividad.

II.– Todas las actuaciones de rehabilitación con destino a operaciones de vivienda, ya se refieran a adquisición y preparación de suelo, ordenación y conservación de conjuntos históricos o arquitectónicos, etc., y, en particular, la rehabilitación, bajo cualquier forma de promoción, de viviendas ya existentes.

III.– La ejecución retribuida, para terceros, de prestaciones de asistencia técnica y la realización de servicios técnicos, económicos, industriales, comerciales, de comisión o cualesquiera otros relacionados con su naturaleza y actividad.

IV.– La adquisición y venta de toda clase de bienes, muebles o inmuebles, y la construcción o edificación adecuada sobre ellos, que sean precisos o convenientes a cualquiera de los fines y actividades reseñados en los puntos anteriores.

V.– La gestión en régimen de arrendamiento de viviendas, pertenecientes al patrimonio social, y de aquellas otras que le fueren adscritas por cualquier título de cesión, para esta misma finalidad locaticia.

2.– Para la realización del objeto social la Sociedad podrá participar, previa autorización del Gobierno y en las condiciones que se determinen en cada caso, en otras empresas nacionales o extranjeras que tengan por objeto programas de construcción de viviendas, o, en su caso, de signo equivalente.

3.– La ejecución de las obras se adjudicará por la Sociedad en régimen de libre concurrencia, sin que, en ningún caso, pueda la Sociedad ejecutarlas directamente, y respetando en los procedimientos de adjudicación los principios de publicidad y libre concurrencia.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de junio de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

El Consejero de Urbanismo y Vivienda,
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA.